



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO HIRI HONDAKINAK BIOMETANIZAZIOZ ETA KONPOSTATZEZ TRATATZEKO LANTEGIA USTIATZEKO ARAUDIA

AZALPENA

Gasteizko Udal Hondakinen Kudeaketarako Plan Orokorraren helburuen artean herritarrek sortutako hondakin organikoen balorizazioa egitea finkatu zen, eta horretarako beharrezkotzat jo zen "materia biodegradagarrien bilketa eta sailkapen egokia egiteko beharrezkoak ziren erre-mintak eskuratzea, kalitateko konpost bat lor zedin ahalbidetzeari begira". Plan horretan, halaber, beste helburu bat jaso zen, zabortegira botatzekoak ziren udal hondakin biodegrada-garrien kopurua murriztearekin loturik.

Ildo beretik, Zabortegiaren Zerbitzuko Araudiak adierazten duen bezala, "aldez aurretik tratamendu bat izan duten hondakinak bakarrik bota ahal izango dira Gardelegiko zabortegira".

Aurreko helburu horiek gauzatu daitezten, Gasteizko Udalak udal hondakinen tratamendurako azpiegitura bat abiarazi du, etxeetan, saltokietan, azoketan eta beste hainbat lekutan gaika bereizitako frakzio organikoaren balorizazioa modu bateratuan baina independenteki egitea ahalbidetzen duena, hori guztia kalitateko konpost bihurtuz, baita udal hondakin horretako gainerako frakzioaren tratamendua egitea ere, zati horren barruan sartzen diren ontzien hondakinak berreskuratuz eta birziklapenerako xedatuz, eta bertan aurkitzen den frakzio organiko-koa egonkortuz, era horretan energia erdietsiz eta gai egonkortu bat sortuz, duen kalitatearen arabera nekazaritzan gehigarri organiko gisa ere erabili ahal izango dena.

Tratamendu hori jada gauzatzen ari da, Arabako Lurralde Historikoari dagokionez, Jundizko Mendebaldeko hedapenean kokatuta dagoen Gasteizko Hiri Hondakinak Biometanizazio eta Konpostaje bidez Tratatzeke Instalazioan.

Funtzionamenduan hasi denez gero, Gardelegiko zabortegian aurrez tratamendu bat jasan ez duen udal hondakinik ezin izango da ezabatu aurrerantzean, gai berrerabilgarri, birziklagarri eta balorizagarri guztiak berreskuratuz, horren barruan aprobetxamendu energetikoa ere jasoz, eta balorizatzerik ez dagoena bakarrik ezabatuz.

I. KAPITULUA. ALDERDI OROKORRAK

1. artikulua.- Helburua

Araudi honen helburua, hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Biometanizazio eta Konpostaje bidez Tratatzeke Instalazioen erabiltzaileek instalazio horiek erabiltzeko dituzten baldintzak arautzea da.

Instalazio hauetan, Araudi honetako Hondakin onargarriak 11. artikuluan zehaztuta datozen hondakin onargarriak bildu, biltegitatu, manipulatu eta tratatuko dituzte, berreskuratutako materialak eta konposta merkaturatuko dituzte eta soberakinak zabortegira garraiatuko dituzte.

2. artikulua.- Definizioak

Dokumentu honetan ondorengo definizioak erabiltzen dira:

ZP Zabor-poltsa. Jatorrian bereizi ez den udal hondakinaren etxeko frakzioa da, edo etxeko zaborraren soberako frakzioa.

EH. Etxeetako Hondakinak. Dokumentu honetan ZPri nahiz EUHFOi (biak berdinduz eta bilduz) ematen zaien izena da.

RICSA. Udal hondakinen barruan aurkitzen den hiri-hondakinen antzeko merkataritza-frakzioa edo merkataritzako soberako frakzioa da.

HH Hiri Hondakinak. Dokumentu honetan EHri, RICSAri nahiz MUHFOei (hirurak berdinduz eta bilduz) ematen zaien izena da.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

UH. Udal Hondakinak. Dokumentu honetan HHei nahiz KLHei (biak berdinduz eta bilduz) ematen zaien izena da.

B. Boluminosoa. Bere tamaina handiagatik edo formagatik, ekipo desberdinetan butxadurak eragin ditzakeen hondakina da, Aldez Aurreko Tratamendurako tromeletan sartu aurretik baztertuko dena.

KLH. Kimaketa eta Lorazaintzako Hondakina. Jatorrian bereizi den udal hondakinaren etxeko edo etxetik kanpoko landare-frakzioa da.

EUHFO. Hiri edo udal hondakinen etxeko frakzio organikoa da, jatorrian gaika bereizia, eta horrelako tratamendua ematea ahalbidetzen duten kalitate-baldintzak betetzen dituen.

MUHFO. Hiri edo udal hondakinen merkataritzako frakzio organikoa da, jatorrian gaika bereizia, eta horrelako tratamendua ematea ahalbidetzen duten kalitate-baldintzak betetzen dituen.

DLH. Zabor-legar Hondakinak. Dokumentu honetan masahondakinei ematen zaien izena da (beraz, EUHFO, MUHFO eta KLH ez dira sartzen horren barruan).

Enpresa Emakidaduna. "Biocompost de Álava, U.T.E." enpresen aldi baterako batasuna eta bere ordezkariak dira.

Larrialdia. Instalazioan eragiketak burutzeko ohiko baldintzetatik kanpoko egoera izango litzateke, ekoizpenerako eta/edo instalazioetarako ondorio larriak dituen, edo une jakin batean ingurumeneragin bat sor dezakeena edo pertsonen segurtasunari eta osasunari kalte egin die-zaiekeena. Instalazio hauen ohiko ustiapena geldiaraztea justifikatuko luke horrek.

Intzidentzia. Instalazioan ohiko funtzionamendu-baldintzetatik kanpoko egoera izango litzateke, ustiapenean nolabaiteko ondorioa izan dezakeena eta ekoizpenean edo ingurumenean ere balizko eraginen bat edo beste izan dezakeena.

Intzidentzia. Arabako Lurralde Historikoan biltzen diren Hiri Hondakinak Konpostaje eta Biometanizazio bidez Tratatzeko Instalazioa da eta Gasteizen kokatua dago. Barnealdeko nahiz kanpoaldeko instalazioak sartzen dira horren barruan, baita bertako barrutia, bere perimetroa, azalera eta kanpoko bideak ere.

Produktua. Instalazioan hondakinen tratamendutik lortzen diren gaien multzoa da, eta horiek amaierako erabiltzaile bati zuzenean zuzendu ahal izango zaizkie horiek erabil ditzan (esaterako, konpost modura).

Garbigunea. Hondakin onargarriak gaien arabera uzteko Instalazioko sarbide-eremuan aurkitzen den instalazio txikia, pertsona fisikoek nahiz juridikoek erabil dezaketena. "Garbigune" izenez ere ezagutzen dira.

Hondakinak. Dokumentu honetan EHri, RICSARI, KLH, EUHFO nahiz MUHFOfi (guztiak berdinduz eta bilduz) ematen zaien izena da.

Errefusa. Instalazioko hondakinen tratamendutik sortutako materia multzoa da, eta bertatik ezin daiteke produktu birziklagarrikerik edo energiakerik lortu bertan dauden prozesu eta sistemen bitartez, eta horrenbestez, amaierako tratamendurako xedatu beharrekoa da.

Araudia. Honako hau dugu Gasteizko Hiri Hondakinen Tratamendurako Instalazioaren Zerbitzu-zuko Araudia.

Azpiproduktua. Instalazioan hondakinen tratamendutik lortzen den materia multzoa da, ezin zaizkio amaierako erabiltzaile bati zuzenean zuzendu horiek erabiltzeko, eta horrenbestez, beste prozesu batzuetatik igaro beharra dute aipatutako erabiltzaile horrengana egoera egokian iristeko.

Erabiltzailea. Sortzen dituzten udal hondakinak instalazio honetan uzteko baimena duten udal, mankomunitate, koadrila eta pertsona fisiko nahiz juridikoak.

3. artikulua. Hondakinen sailkapena

Araudi honen ondorioetarako, honela sailkatzen dira hondakinak:

1.- Hondakinen Sailkapen orokorra.

UH

HH

EH

ZP

EUHFO

MUHFO

RICSAR

KLH

2.- Instalazioan deskarga-eremuaren arabera Hondakinek duten azpisailkapena.

DESKARGA-HOBIAK

DLHZP

RICSA

DESKARGA-EREMUA

MUHFO

EUHFO

KLH

- ZP Zabor-poltsa.
- MUHFO Jatorrian bereizitako merkataritzako frakzio organikoa.
- EUHFO Jatorrian bereizitako etxeetako frakzio organikoa.
- RICSA Hiri-hondakinen antzeko merkataritza-frakzioa.
- EH Etxeetako hondakina.
- KLHEtxeetako eta etxetik kanpoko landare-frakzioa (kimaketak eta lorezaintza).
- HH Hiri Hondakinak.
- UH Udal Hondakinak.
- DLH Zabor-legar zatia.

4. artikulua. Erabiltzaileak

Instalazio hauen erabiltzaile izan daitezke honakoak:

Gasteizko Udala.

Arabako Lurralde Historikoko Udalak, Mankomunitateak, Partzuergoak eta Koadrilak, alde z aurretik Gasteizko Udalarekin hitzarmena egin baldin badute.

Trebiñoko Konderriko Udalak, alde z aurretik Gasteizko Udalarekin Hitzarmena egin baldin badute.

Udal hondakin onargarriak ekoizten dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak, Arabako Lurralde Historikoaren lurralde-eremuan kokatuak, baldin eta alde z aurretik Gasteizko Udalaren berariazko baimena erdietsi badute.

5. artikulua. Ustiapenaren kudeaketa

Instalazioko ustiapenaren kudeaketa, CESP A, S.A. eta FCC, S.A. enpresek osatzen duten Bio-compost de Alava UTE Enpresen Aldi Baterako Batasunari esleitu dio Gasteizko Udalak.

6. artikulua. Araudia onartzea.

Enpresa emakidaduna behartuta dago emakidan lagatako zerbitzuak egoki eta behar den bezala eskaintzera, Araudi honetan zehazten dena erabat errespetatuz eta bertan dioena hitzez hitz bere kontura betez, eta berea da izaera orokorre z zerbitzuaren ardura, baita instalazioaren helburua betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen eragiketa guztiak egiteko ardura ere, eta halaber, instalazio horiek mantentzea bertako funtzioak, arlo teknikoa, eragiketak eta iraunkortasuna bermatzeari begira.

7. artikulua. Tratamendu tasa

Zerbitzu hori eskaintzeagatik tasa bat ordaintzea eskatuko die Udalak bertako erabiltzaileei, eta tasa hori urtero finkatuko da dagokion Ordenantza Fiskalaren bitartez.

Instalazioan hondakinen tratamenduagatik kobratuko den kopuru horrek, gutxienez, hori finkatzeak eta ustiatzeak dakartzan kostuak, indarreko legeriak eskatutako bermeek eragindako gastuak eta ingurumena zaintzeko eta kontrolatzeko kostuak ere hartuko ditu bere barnean.

Udalak tarifa hori ordaindu dadila eskatu ahal izango du auto-likidazioaren erregimenean, eta hori tratamendu-eskaerarekin batera aurkeztuko da. Tarifaren behin-behineko likidazioa baimen hori eskatzeko unean egin ahal izango da.

Instalaziora sartzeko puntuan erabiltzaileen bistan egongo den kartel batean argitaratuko dira tarifa hauek.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

8. artikulua. Hondakinak jasotzeko eta produktuak eta azpiproduktuak biltzeko ordu-tegia

Udal hondakinen bilketarako zerbitzu publikoen harrera-ordutegia eguneko 24 orduak izango dira asteko egun guztietan.

Gainerako erabiltzaileentzako harrera-ordutegia honakoa izango da:

Astelehenetik ostiralera: 7:30etik 19:00etara

Larunbatetan: 8:00etatik 13:00etara

Ordutegi hori bera aplikatuko da Garbigunean hondakinak jasotzeko ere.

Aurrez Udalak baimendutako salbuespenezko egoeretan izan ezik, ez da onartuko ezarritako ordutegi horretatik kanpo hondakinik deskargatzea.

Produktuak eta azpiproduktuak jasotzeko ordutegia honakoa da:

Astelehenetik ostiralera: 7:30etik 19:00etara

Larunbatetan: 8:00etatik 13:00etara

Instalazioko zerbitzu orokorren funtzionamendurako ordutegia astelehenetik ostiralera izango da (8:30etik 13:30era, eta 15:00etatik 17:30era), jai-egunetan izan ezik.

Ordutegi horren barruan bakarrik onartuko dira herritar taldeen bititak.

II. KAPITULUA.- USTIAPEN-BALDINTZA OROKORRAK

9. artikulua. Instalazioko eragiketak

Enpresa emakidadunak Tratamendurako Instalazioaren ohiko funtzionamendua etengabe martxan eduki beharko du, eta prozesu eta produktu horietan kalitate eta kopuru egokiak lortu.

10. artikulua. Instalazioaren helburuak

Ustiapenaren lehenetsuneko helburu gisa, enpresa emakidadunak honakoak izango ditu: Instalazioaren ingurunean ahalik eta ingurumen-eraginik txikiena sortu.

Biogas eta energia kopururik handiena ekoitzi.

Kalitateko konpost bat erdietsi (hain zuzen ere, B mailako Konposta edo maila goragokoa, 824/2005 Errege Dekretuaren arabera).

Material birziklagarrien ahalik eta kopururik handiena erdietsi.

Lortutako produktu eta azpiproduktuak egoki kudeatu.

III. KAPITULUA.- HONDAKINAK ONARTU ETA HARTZEA

Lehen sekzioa. Hondakinak

11. artikulua. Hondakin onargarriak

Instalazioan masan jasotako hiri edo udal hondakinak onartuko dira, esate baterako jatorrian gaika bildutako hiri edo udal hondakinen frakzio organikoa.

Beraz, etxeetako hondakinen artean, zabor-poltsa (ZP) izenez ezagutzen duguna eta etxeetan gaika bildutako frakzio organikoa (EUHFO) izango dira tratamendua izango duten frakzio bakarrak, eta horiei hiri-hondakinen antzeko merkataritza, erakunde eta zerbitzuetako beste hondakin batzuk gehituko zaizkio, bai masan (RICSA) eta bai ekoizpen-erakunde handietan ere (azokak, askorentzako jangelak, ostalaritza-enpresak eta abar) bildutako merkataritzako gaikako frakzio organikoa (MUHFO). Gainera, etxeetako eta etxetik kanpoko kimaketa eta lorezaintza-lanen soberakinak (KLH) ere sartuko dira horren barruan.

Hasiera batean, instalazioetan tratatu beharreko hondakinak Arabako Lurralde Historikoko bilketarako zerbitzu publikoek eskainitakoak izango dira.

Azken batean, hondakin onargarriak hauek izango dira:

20 Udal hondakinak (etxeetako hondakinak eta saltoki, industri eta erakundeetatik datozen antzeko hondakinak), gaika bildutako frakzioak ere barne.

20 01 Gaika bildutako frakzioak (15 01 azpikapituluan zehaztutakoak izan ezik)

20 01 08 Sukalde eta jatetxeetako hondakin biodegradagarriak

20 02 Parke eta lorategietako hondakinak (hilerrietako hondakinak ere barne)

20 02 01 Hondakin biodegradagarriak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

20 03 Beste udal hondakin batzuk
20 03 01 Udal hondakinen nahasketak
20 03 02 Azoketako hondakinak
20 03 03 Bide-garbiketako hondakinak

12. artikulua. Hondakin ez-onargarriak

Inola ere ez da onartuko Instalazioan honako hondakinak sartzea:

Sutze-puntuan aurkitzen diren hondakinak.

50° C-tik gorako tenperaturan daudenak.

Egoera likidoan edo gaseosoan aurkitzen diren hondakinak (ez dira debeku honen barruan sartuko hondakin onargarriek kanpora ditzaketen gas edo likidoak).

Deskargatzeko unean, pertsoneri, ondasun materialei edo ingurumenari arriskuren bat ekar diezaioketen edo Instalazioko lanen antolamenduari arazo garrantzitsuak sor diezaioketen hondakinak.

Instalazio barruan ez dira onartuko indarreko legeriak arriskutsutzat sailkatuta dituen hondakinak.

Gainera, inola ere ez dira onartuko:

Hondakin likido edo likatsuak, oro har, kamioi hermetikoetan edo zisternetan garraiatuak.

Hondakin erradioaktiboak.

Hondakin lehergarriak, korrosiboak, oxidatzaileak, sukoi errazak edo sukoiak.

Meatzaritza eta erauzpen-jardueretatik sortutako hondakinak.

Abeltzaintza-jardueretatik datozen hondakinak.

Ospitaleetako eta erietxeetako hondakin infekziosoak.

Botiken hondakinak eta botikak berak.

Ibilgailu automobilak eta ibilgailuak zatikatzeko jardueretatik datozen hondakinak (zati-katze-lanetako eta gai trinkoetako honda kinak) eta antzeko beste hondakin batzuk.

Erabilitako pneumatikoak

Giza kontsumorako xedatuta ez dauden animalia-azpiproduktuen hondakinak.

Bigarren sekzioa. Hondakinak Onartzeko Prozedura

13. artikulua. Hondakinak onartzeko prozedura

Hiri edo udal hondakinak eta gaikako frakzio organikoak onartzeko prozedurak bereizi egingo ditu, batetik, hiri edo udal hondakinak uzten dituzten erakunde erabiltzaileak (udalak eta koa-drilak) eta, bestetik, hiri edo udal hondakinak eta antzekoak utz ditzaketen erabiltzaile pribatuak, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezkeenak.

Lehenengo kasuan, ezinbesteko baldintza izango da dagokion erakunde edo entitateak Gasteizko Udalarekin hitzarmen egokia izenpetzea.

Arabako Lurralde Historikoaren lurralde-eremuan helbidea duten pertsona fisikoek nahiz juridikoek sortutako hiri-hondakinak edo antzekoak direnean, beharrezkoa izango da aldez aurretik Gasteizko Udalak hondakina onartzen duela dioen agiria erdiestea.

Erabiltzaile pribatu hauek tratatu beharreko hondakinak onartzeko eskaera bat aurkeztu beharko dute, eta bertan honako datuak adieraziko dira:

Enpresaren izena

IFZ, IFK eta abar.

Sozietatearen Helbidea

Harremanetarako pertsona

Tratatu beharreko hondakin mota

Hondakina aurkezteko modua

Garraiatzeko modua

Urtean tratatu beharreko kopurua

Hondakinaren sarrera-maiztasuna (egunero, astero eta abar).

Bidaia bakoitzeko hondakin kopurua

Oharrak

Eskabidea jaso ondoren, Udal Zerbitzu Teknikoek hori aztertzeari ekingo diote, eta aldi berean, utsiapen-enpresari bidaliko diote dokumentazioa.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

10 eguneko epean ustiapen-enpresak txosten arrazoitu baina ez-lotesle bat egingo du hondakin hori onartzearen egokitasunari buruz. Hondakin hori onartzen baldin bada, txosten horretan zein tratamendu emango zaion agerraraziko da, baita horren masabalantzea, eta halaber, hori onartzeko gomendatzen den maiztasuna eta zein modutara aurkeztu beharko den.

Udalak hondakina onartu edo hartzeari uko egingo du. Onartuz gero, baimen horretan hondakinak emateko baldintzak adieraziko dira, baita baimendutako deskarga-maiztasuna ere.

Aurreko hori horrela izanik ere, hondakina instalazioetan sartzan den lehen aldia, baita ausaz aukeratutako geroko beste sarrera batzuetan ere, enpresa emakidadunak kargaren ikuskeraren bitartez egingo du, hondakinaren argazkiak ateraz, gertaera horren inguruko dokumentazioa jasotzeko. Horretarako, inguru bat prestatu, mugatu eta seinale batzuekin adieraziko da harrera-pabiloian, eta era horretan, ikuskeraren hori egin ahal izango da, Instalazioan jada utzita dauden hondakin onartuekin nahasteko arriskurik gabe. Garraio-laria eremu horretan egotera behartuta egongo da ikuskeraren amaitu arte.

Hondakin horiek azkenean onartzen ez baldin badira, pertsona edo enpresa ekoizleak, edo garraiolariak bestela, izango du horiek ateratzeko ardura, eta kudeaketa lan horiek guztiz bere kontura izango dira. Enpresa emakidadunak haren esku jarri ahal izango ditu hondakin horiek bildu eta ateratzeko beharrezkoak diren baliabide eta tresnak, eta erabilitako bitarteko horiei dagozkien kostuak haren kontura joan daitezke, Instalazioko jardueran izandako eraginagatik edo bertako jarduera murrizteagatik erreklamazio ekonomikoak egin ahal izatearen kalterik gabe.

Hirugarren sekzioa. Sarbideak eta hondakinak jasotzea

14. artikulua. Sarbideetako kontrola

Instalazio honetara ibilgailuak eta pertsonak sartzeari aurreikusita dago. Kasu batean nahiz bestean, sarrerako kontrol-gunean behar bezala identifikatu beharra dago.

Pertsonak edo ibilgailuak identifikatu ondoren, sarrerako kontrolean Instalaziora sartzeko aginduak emango dira, egin beharreko jarduera nolako den kontuan izanik. Jarduera horrek ondorengo kasuetakoren batean jasoa egon behar du, eta horietako batean ere ez baldin badago, sarrerako kontrol-guneak horri buruzko informazio egokia eman beharko du, instalazioetan sartu behar duen ala sartu behar ez duen erabaki arte.

Sartzeko baimena duten kasuak honako hauek dira:

IKASLEEN ETA HERRITAR TALDEEN BISITAK:

Bai oinez etortzen badira eta bai ibilgailuren batean etortzen badira ere, bisita horren ordezkari den pertsonaren bidez identifikatuko dira sarrerako kontrol-gunean.

Sarrerako kontrol-guneko langileak Instalazioko bisita-arduradunari jakinaraziko dio. Arduradun horrek sartzeko baimena ematen baldin badu, sarrerako kontrol-guneko langileak aparka-lekurantz bideratuko du bisita, eta bertan, bisitetarako toki bat egongo da behar bezala identifikatua.

Instalazioko harrera-guneko pertsonalak sarrerako ataureraino igaroaraziko du bisita. Pertsonak horrek bisitaren erregistroa egingo du, ondorengo datuak bilduko dituen inprimaki bat bete:

Bisita egingo duen ikastetxea, institutua, unibertsitatea, kolektiboa edo erakundea.

Ikastetxe, institutu... horretako ordezkaria (irakaslea, tutorea, eta abar).

Instalazioko bisita gidatuko duen pertsona erantzulea eta zein kargu betetzen duen.

Sarrerako eta irteerako eguna eta ordua.

Bisitarien kopurua.

Segurtasun-arau egokiak jakinarazi eta jaso ere egin direla dioen berrespena (ikastetxeko, institutuko, kolektiboko... ordezkariaren sinadura), bisitan zehar bete beharrekoa.

Oharrak.

Bisita erregistratu ondoren, ingurumen-aretoa igaroko da, eta han, arduradunak edo bisitaren gidariak ikusiko den horren aurkezpen laburpen bat egingo du eta bete beharreko arauak azalduko ditu (segurtasun eta babeserako arauak bereziki azpimarratuz). Hala-



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

ber, azalpen, heziketa eta kontzientziazio xede batekin bideo bat emango da, herritarrek egin ditzaketen jarduera desberdinen garrantzia ezagutzera emateko asmoz, betiere ingurune osasungarriagoa eta iraunkorragoa erdiesteari begira.

Jarraian, arduradunak edo gidariak bisiten ibilbidetik barrena gidatuko du bisita, eta ingurumen-aretoan azaldu den ibilbide finkatu hori egingo dute. Bisitarietzako ibilbide horretan barrena seinale egokiak jarrita egongo dira.

Bisitarietzako ibilbide horretan barrena bakarrik onartua dago ibiltzea. Horrenbestez, guztiz debekatuta dago beste eremu batzuetara joatea bisitak irauten duen bitartean.

Ibilbidearen amaierara iritsi ondoren, ibilbide beretik atzera itzuli beharko da harrera-guneraino iritsi arte, eta bertan emango zaio amaiera bisitari.

Puntu horretan, Instalazioko bisita-arduraduna sarrerako kontrolguneko langilearekin harremanetan jarriko da, Instalaziotik irteten utz diezaien bisitari.

ERAKUNDEEN ETA ENPRESEN BISITAK:

Ikasleen bisitetarako protokolo bera izango litzateke, baina salbuespen modura, biometanizazio eta baterako sorkuntzarako parketik barrena doan ibilbide bat egin ahal izango dute. Ibilbide horretan seinale egokiak jarrita egongo dira.

HORNITZAILEK, AZPIKONTRATISTAK, MANTENTZE-LANETAKO ENPRESAK, ETA ABAR:

Bai oinez etortzen badira eta bai ibilgailuren batean etortzen badira ere, sarrerako kontrol-gunean identifikatuko dira. Sarrerako kontrol-guneko langileak Instalazioko Ustiapen Buruari jakinaraziko dio. Ardu-radun horrek sartzeko baimena ematen baldin badu, sarrerako kontrol-guneko langileak apar-kalekurantz bideratuko ditu pertsona horiek. Harrera-gunean ondorengo datuak jasoko dira:

Zein enpresaren ordezkari den.

Ordezkariaren izen-abizenak.

Sarrerako eta irteerako eguna eta ordua.

Egingo duen jarduera.

Oharrak.

Jarraian, eta betiere Ustiapeneko Buruzagitzaz arduratzen den pertsonarekin edo horrek adierazten dion pertsonarekin batera, bere jarduera burutuko duen Instalazioko tokiraino lagunduko dio bisitariari.

HONDAKINAK DESKARGATZEKO EDO AZPIPRODUKTUAK, ERREFUSA ETA ABAR KARGATZEKO IBILGAILUAK:

Hondakinak jasotzea 15. artikuluan azaltzen da horretarako protokoloa.

15. artikulua. Hondakinak jasotzea

Instalazio honetara hondakinak uztera maiztasun batez etortzen diren ibilgailu guztiak identifikazio-txartel bat edukiko dute, bakarra eta berezia, instalaziora sartu ahal izateko. Sartu ahal izateko, baskulan aurkitzen den identifikazio-zutabearen aurrean erakutsi beharko du garraio-lariak.

Kamioi berak era desberdinetako hondakinak uzten baldin baditu Instalazioan (esate baterako, "ZP" masako hiri-hondakinak edo "UHFO" jatorrian bereizitako frakzio organikoa), ibilgailu horrek identifikazio-txartel desberdinak edukiko ditu hondakin mota bakoitzerako. Instalazioan utziko diren hondakinak garraiatzen dituzten ibilgailu guztiak baskulan pisatuko dira sarreran.

Instalazioan lehen aldiz sartu nahi duen hondakinen garraiorako kamioi bakoitzari datuen erregistro bat egingo zaio -jarraian agertzen dira datuok-, datu-base informatikoa elikatze-zeko helburuz. Hondakinak deskargatu ondoren, hutsean pisatzeari ekingo zaio ibilgailuaren tara erre-gistratzeko. Datu hori besteekin batera jasoko da datu-basean, eta horrela, guztiz identifikatuta eta erregistratuta geratuko da ibilgailua.

Urtean hiru aldiz gutxienez, aurreko prozedura hori bera egingo da, ibilgailu bakoitzaren hutseko tararen datuak egoki eguneraturik edukitzeko helburuz. Erabiltzaileak behartuta daude beren ibilgailuen tara hori aldatzen duen edozein gorabehera jakinaraztera.

Baskula hori sistema informatiko batekin konektaturik egongo da, eta ondorengo datuak uztar-tuko ditu: matrikula eta ibilgailu-mota, garraiatutako hondakinaren tipologia, hondakinaren ardura duen erakundea, hondakinaren garraio-enpresa, jatorria, pisu gordina, sartutako hondakinaren tara eta pisua, eguna eta ordua.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

18. artikuluan zehazten dira deskargarako eremuak, utzi beharreko hondakin motaren arabera. Eremu horiek behar bezala seinaturik egongo dira, eta era horretan, garraiolariak uneoro jakingo dute non deskargatu behar duten garraiatzen duten hondakina. Hondakinen deskarga hori ezin baldin bada aurreikusitako eremuetan gauzatu, seinale mugikorren bitartez adieraziko da debeku hori, eta beste batzuen bidez adieraziko da non egin behar den deskarga. Nolanahi ere, une bakoitzean enpresa emakidaduneko langileek adierazten dizkieten aginduak betetzera behartuta dago garraiolaria.

Sarreran bakarrik pisatzen diren ibilgailuak, deskarga egin ondoren sarrerako kontrolgunera joango dira, eta han, bertako langileak jaso izanaren agiri edo txartel bat emango dio garraiolariari, ondorengo datuak jasoz: erakunde arduraduna, garraiolariaren izena, ibilgailu mota eta matrikula, garraiatutako hondakin mota, eguna, ordua, pisu gordina eta sartutako hondakinaren pisua. Agiri horrek hondakina Instalazioan utzi izana egiaztatzeko balio izango dio garraioaz arduratu den pertsonari.

Nolanahi ere, ibilgailuaren tara edo hutseko pisua ezagutzen ez denean, edo ibilgailuan honda-kinak garraiatzeko kaxa desberdinak sartu izanagatik tara hori aldatu denean, esate baterako gako-ibilgailuak edo multivol erakoak erabiltzen direnean, nahitaezkoa izango da hondakinak ematen diren bakoitzean ibilgailua pisatzea instalaziotik irterera-koan. Kamioiak hondakinak deskargatu ondoren, irteerara joango da, eta han, identifikazio-txartela erakutsiko du berriro baskulan kokatuta dagoen zutabearen aurrean. Jaso izanaren agiri edo txartel bat emango da, eta bertan, arestian adierazitako datu berberak agertuko dira. Agiri horrek hondakina Instalazioan utzi izana egiaztatzeko balio izango dio garraiolariari.

Hileko maiztasunarekin zenbait argazki egingo dira hondakin mota desberdinak jasotzeko pabilioiaren sarreran. Era horretan, bertara iristen diren hondakinak benetan ibilgailu horretan iritsi behar dutenak direla eta toki egokian uzten direla egiaztatuko da.

16. artikulua. Instalazioan barrena ibilgailuak ibiltzea

Ustiapen-lanei atxikirik ez dauden ibilgailuei ez zaie utziko bertatik ibiltzen, hondakinak deskargatzera edo prozesuan zehar sortzen diren produktu, azpiproduktu edo errefusak kargatzera doazen kamioiei izan ezik, betiere horiei bertara sartzeko baimena eman bazaie.

Salbuespen horrek hornitzaileei, azpikontrastei, mantentze-lanetakoei, zerbitzuetakoei... ere eragiten die, kasu honetan ere sarrera behar bezala baimendu bazaie.

Instalazio barruan, hainbat seinale eta marka egongo dira, egin beharreko jardueraren arabera ibilgailuei agindu batzuk emanaz.

Enpresa emakidadunak seinale egokiak jarri eta egoera onean mantenduko ditu, Instalazioaren barrualdean ibilgailuak egoki mugidaitzela antolatzeko. Indarreko zirkulazio-kodeak aurreikusita dituen eredu eta xedapenak bete beharko dituzte seinale horiek.

Instalazio barruko abiadura 20 Km/h izango da era guztietako ibilgailuentzat.

IV. KAPITULUA.- HONDAKINAK UZTEKO BALDINTZAK

17. artikulua.- Sartzea eta barruan egotea

1. Sartzeko tokia.

Ibilgailuak Instalazioan sartzeko tokia Askarra kalea z/g izango da (Jundiz Mendebaldea). Sarrera hori ibilgailuak sartzeko nahiz irteteko erabiliko da.

Instalazioetara sartzeko mugatua dago, eta instalaziotik kanpoko edozein pertsonak baimena beharko du barrura sartzeko, eta beraz, horrelako baimenik ez badu, ezingo da Instalazioko sarrerako kontrolgunetik aurrera igaro.

2. Pisatzeko kontrol gunea

Pisatzeko kontrol-neurri hori Hondakinak jasotzea 15. artikuluan adierazita dagoen moduan egingo da.

Sartzeko eta pisatzeko kontrol-izapide horiek bete ondoren, kargatutako ibilgailuek sarreara-bidetik barrena joan beharko dute harrera-guneko eraikineraino.

Harrera-guneak sartzeko eta irteteko bi ate ditu, eta horrenbestez, ibilgailuak errespetatu egin beharko ditu bi ate horiek irekitzeko eta ixteko denborak.

Bai itxaronaldietan eta bai pisatzeko eta sarrerako kontrol prozesuetan ere, ustiapenez arduratzen den pertsonalak emandako aginduak ezin zorrotzago bete beharko dira.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

18. artikulua. Deskarga-guneak eta deskargatzeko prozedura

Frakzio organikoen (MUHFO eta EUHFO) eta landare-frakzioaren gaikako bilketa egin ondoren etortzen diren ibilgailuak deskargagunera bideratuko dira, betiere ez-berezkoetarako kalitate eta edukien irizpideak betetzen badituzte. Gainerako hondakinak edo masako hiri-hondakinak dakartzaten ibilgailuek harrera-hobietan egingo dituzte deskarga-lanak.

Ibilgailuek deskarga-plataformaren gainean egingo dituzte maniobrak, isurketarako jarra egokian kokatzeko eta kaxen barruko edukia tokirik egokienean botatzeko.

Instalaziora sartzten diren ibilgailu guztiak dagokien tokietan hondakinak deskargatzeko egokituak egongo dira, eta berak izango dira eragiketa horien erantzule bakarrak.

19. artikulua. Hondakinak uzteko baldintzak

Etxeetako nahiz merkataritzako hondakinak usteltze-prozesurik hasi gabe ekarri beharko dituzte bilketarako zerbitzu publikoek. Inola ere ez da onartuko usteltze-egoera aurreratuan aurkitzen diren hondakinak.

Beren neurri handiengatik ez dira onartuko Instalazioan tratatzerik ez duten hondakinak edo Instalazioan ezarritako ekoizpen-prozesuen barruan aurreikusita ez dagoen alde aurreko beste prozesuren bat behar dutenak.

Beste alde batetik, bilketa publikoetatik nahiz pribatuetatik datozen kimaketa eta lora-zaintzako hondakinek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

Zuhaitzen adar edo enbor pusken gehienezko diametroa 8 cmkoa izango da.

Zuhaitzen adar edo enbor pusken gehienezko luzera 2,20 mkoa izango da.

Inola ere ez da onartuko zuhaitzen mozketa-lanetatik datorren hondakinik.

20. artikulua. Instalazioko irteera

Enpresa emakidaduna behartuta egongo da instalazioan hondakinak deskargatu ondoren bertatik alde egiten duten kamioien irteerak egunero erregistratzera, garraio hori egin duen garraiolariari buruzko informazioa adieraziz (izena, enpresa, matrikula, eta abar), baita kargaren espedizio-pertsonalak bidezko jotzen duen beste edozein informazio ere.

V. KAPITULUA. PRODUKTUAK ETA ERREFUSAK KARGATZEA ETA KANPORATZEA

21. artikulua. Materialak kargatzea

Produktuak, azpiproduktuak eta errefusak kanporatzen dituzten ibilgailuek pisatze bikoitz bat egin beharko dute Instalaziora sartzten diren bakoitzean, hondakinak garraiatzeko ibilgailuentzat arestian adierazitako urrats berberak eginez.

Kasu honetan izango den desberdintasun bakarra, hain zuzen ere, hauxe izango da: sarrera-kontrolerako langileak txartel bat emango dio garraiolariari bertara iristean, baina desberdina izango da jaso beharreko azpiproduktuaren arabera. Garraiolariak txartel hori erabiliko du baskulako zutabeetan, eta irteteen ere txartel bat jasoko du (kasu honetan, baskulako irteera-zutabe horretan jasoko da).

Halaber, produktu, azpiproduktu edo errefusak kanporatzeko ardura duen garraiolaria behartuta dago ibilgailuen tara aldatzen duen edozein gorabehera jakinaraztera.

22. artikulua. Karga-guneak

Berreskuratutako azpiproduktuen, konpostaren eta errefusen mota desberdinak kargatzeko bereizitako guneak izango dira instalazioan.

Karga-guneetan ez da onartuko ustiapen-lanei atxikita ez dauden ibilgailuak ibiltzea, kargatzera doazen kamioiak izan ezik.

Enpresa emakidadunak seinale egokiak jarriko ditu ibilgailuak eta oinezkoak Instalazioaren barrualdean batetik bestera ibiltzea egoki antolatzeko, barneko zirkulazio-bideen bitartez, karga-guneen sarreran nahiz irteeran.

Instalazio honetan kargatzera doazen ibilgailuentzat itxarroteeremu bat izango da.

Debekatuta dago karga-guneetan baimenik gabeko pertsonak egotea.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

Debekatuta dago, halaber, Instalazioan berreskuratutako azpiproduktuak eta konposta manipulatzeko, karga-eragiketarako eta/edo ustiapenari atxikitako langileek horiek lekuz aldatzea izan ezik.

23. artikulua. Instalazioko irteerak

Enpresa emakidaduna behartuta egongo da produktu, azpiproduktu eta errefusuen irteerei buruzko erregistro bat eramatera Irteeren Erregistro batean (kopuruak, kalitateak, xedeak, eta abar), eta halaber, garraio hori egin duen garraiolariari buruzko informazioa (izena, enpresa, matrikula), baita kargaren espedizio-pertsonalak bidezko jotzen duen beste edozein informazio ere.

VI. KAPITULUA.- GARBIGUNEA

24. artikulua. Garbigunearen erabiltzaileak

Garbigunearen erabiltzaile izango dira Arabako Lurralde Historikoan helbidea duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (bulegoak, enpresa txikiak eta abar), baldin eta bertan onartuak izateko moduko hondakinak sortzen badituzte, eta Hondakin Onargarriak 26. artikuluan zehaztuta daude horiek.

25. artikulua. Garbigunean hondakinak jasotzeko ordutegia

Garbigunean hondakinak jasotzeko ordutegia ondorengoak izango da:

Asteleheneretik ostiralera: 7:30etik 19:00etara

Larunbatetan: 8:00etatik 13:00etara

Erabiltzaileek beti ordutegi hori betez utziko dituzte bertan hondakinak, maiztasunari dagokionez inolako mugarik gabe. Nolanahi ere, hondakin horiek enpresa txikietatik eta saltokietatik datozenean, enpresa emakidadunaren ahalmena izango da Garbigune horretan hondakinak jasotzeko egutegi eta ordutegi bat finkatzea, hondakin hori sortu duen pertsonarekin edo enpresarekin adostu beharrekoa izango dena.

26. artikulua. Garbigunean onartzen diren hondakinak

Garbigunean onartzen diren hondakinak ondorengoak izango dira:

Hondakin metalikoak:

Armazoi edo profil metalikoak.

Erabat hutsik dauden bidoi edo latak, barruan hondar toxikorik edo arriskutsurik izan ez badute.

Plastikoak

Ontziak, bilgarriak eta botilak.

Papera eta kartoia

Aldizkariak, egunkariak eta abar.

Enbalajeetako kartoia.

Bulegoko papera.

Beira

Botilak.

Ontziak, oro har, barruan hondar arriskutsurik ez dutenak edo izan ez dutenak.

Azkenean, enpresa emakidadunaren ahalmena izango da hondakin jakin bat onargarria den ala ez erabakitzea.

27. artikulua. Uzteko baldintzak

Ez da onartuko 500 kg-tik gorako pisu unitarioa duen edo 1 m³ baino bolumen handiagoa duen hondakinik.

Sarrerako kontrol-guneko langileak zainduko du nola sartzen diren hondakinak Garbigunera. Sarrerako kontrol-guneko langilearen betebeharrak honako hauek izango dira:

Erabiltzaileari hondakinak uzten laguntzea

Garbigunea kontserbazio-egoera onenean eta txukun mantentzea

Onargarriak ez diren materialak debekatzea

Erabiltzaileen eta materialen onarpen eta sarrerari buruzko erregistro bat eramatea

Ibilgailuaren matrikula eta bertan utzitako hondakinen kopurua idaztea

Materialen irteera-erregistro bat eramatea (kopuruak eta norakoak)

Baimenik ez duen inork hondakinak kanporatu dezala eragozte



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

VII. KAPITULUA.- OBLIGAZIOAK ETA ZIGORRA

28. artikulua.- Erabiltzaileen obligazioak eta erantzukizunak

Araudi honetan jasotako obligazioez gain, Instalazioko erabiltzaileak behartuta daude Instalazioko enpresa emakidadunari eta/edo Udaleko Zerbitzu Teknikoei komenigarriak iruditzen zaien informazio, ikuskapen, lagin-hartze eta gainbegiratze lanak erraztera, dela hondakinen garraiorako eta tratamendurako finkatutako neurriak bete daitezela bermatzeko edo dela pert-sonen eta ingurumenaren osasuna babestuko dela segurtatzeko. Araudian adierazitako obligazio hauek ez betetzeagatik sorlitezkeen erantzukizunak horiek eragiten dituenari nola hondakinak garraiatzen dituenari eskatu ahal izango zaizkio harekiko elkertasunez.

29. artikulua. Arau-hausteak

Eduki honen barruan agertzen diren arauen aurkako ekintzak edo ez-egiteak arau-hauste administratibotzat hartzen dira, Araudi honek arautzen dituen gaiei dagokienez.

Arau-hauste oso larriak dira honakoak:

Araudi honen 12. artikuluan adierazten diren hondakin ez-onargarriak Instalazioan uztea.

Arau-hauste larriak dira ondorengo ekintza edo ez-egiteak:

Araudi honen 12. artikuluan aipatzen diren ezaugarri horietakoren bat duten hondakinak bertan deskargatzea.

Behar ez bezala utzitako hondakinak baztertzeari eta garbitzeari uko egitea.

Instalazioko enpresa emakidadunak hondakinen izaera, kopuru edo jatorriari buruz eskatutako informazioa emateko obligazioa ez betetzea, edo datu faltsu edo iruzurtiak eskaintzea.

Instalazioaren barrualdean adierazitako abiadura baino handiagoan ibilgailuak gidatzea, edo, edozein modutara ere, pertsonentzat, beste ibilgailu batzuentzat edo Instalazio bertako ele-mentuentzat arriskua sortzen duen abiaduran gidatzea

Ikuskapen, lagin-hartze eta gainbegiratze lanak burutzeko eragozpenak jartzea, aktiboki nahiz pasiboki.

Instalazioko enpresa emakidadunaren adierazpenak ez betetzea instalazioko segurtasunarekin loturiko gaietan.

Arau-hauste arinak dira ondorengo ekintza edo ez-egiteak:

Instalazioan baimenik gabe sartzeta edo baimenduta ez dauden eremuetara sartzeta.

Oro har, Instalazioko enpresa emakidadunaren adierazpenak ez betetzea.

30. artikulua.- Zigorrek

Araudi honen arau-hausteengatik honako eskala honen araberako zigorrek jarriko dira:

Arau-hauste oso larriak: 1.500,01 eta 3.000,00 euro bitarteko isuna eta/edo, egoki izanez gero, instalazioaren erabilera debekatzea.

Arau-hauste larriak: 750,01 eta 1.500,00 euro bitarteko isuna.

Arau-hauste arinak: 300,00 eta 750,00 euro bitarteko isuna.

Zigorrek aplikatzerakoan bereziki irizpide hauek hartuko dira kontuan zigorra mailakatze-ko: arau-haustea nahita edo behin baino gehiagotan egin den, eragindako kalteen nondik norakoa eta urtebetean arau-hauste bera behin baino gehiagotan egin izana, epai irmo batez hori de-klaratu delarik.

Nolanahi ere, ezar litezkeen zigorrek gorabehera, arau-haustea gauzak beren lehengo egoeran jarri beharko ditu eta jabari publikoko ondasunetan eragin ahal izan dituen kalteengatik ordain bat eman, Instalazioko enpresa emakidadunak eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek horiei buruzko ebaluazioa egin ondoren.

Gasteizko Udalak duen zigortzeko ahalmen hori gauzatzeko, beharrezkoa izango da dago-kion espedientearen abiaraztea eta izapidetzea, legezko eta arauzko xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Enpresa emakidadunak Udalarari jakinarazitako arau-hausteari buruzko informazioan oinarrituz abiaraziko da espediente hori. Aurreikusitako zigorrek ezartzea ahalmen hori esleitua duen organoari egokitu zaio.

VIII. KAPITULUA.- INSTALAZIOAREN FUNTZIONAMENDUA

31. artikulua. Laneko arriskuen prebentzioa



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2007/12/22

ALHAO, 23 zk. 2008/02/22

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

Laneko Arriskuen Prebentziorako Legearekin (31/95 Legea) eta Prebentzio Zerbitzuen Araudiarekin (39/97 E.D.) bat etorriz, Arriskuen Ebaluazio bat prestatuko da, eta horretan oinarrituz, dagokion Larrialdi Plana egingo da.

Arriskuen Ebaluazioan burutu beharreko jarduerak eta ingurunea kontuan izanik aurreikus daitezkeen arriskuak zehaztuko dira, horiek eragozteko modua aztertuko da eta egoki diren prebentzio-neurriak adieraziko dira. Ondorengo gaiak jorratuko dira: langileei heziketa eta informazioa eskaintzea, babes-neurri indibidualak eta kolektiboak, seinaleak, lan desberdinen arteko interferentziak, laneko medikuntza, lehen sorospentarako arauak, argiztapena, suteen prebentzioa eta abar.

Larrialdi Planean sor litezkeen gertakariak eta larrialdi-egoerak identifikatuko dira eta kasu bakoitzean bete beharreko aginduak zehaztuko dira.

Erabiltzaileek eta Instalaziora etortzen diren bisitariak informazio zehatza jasoko dute berei eragiten dieten larrialdi-planeko gauzen inguruan, bertan sartu aurretik.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitara eman eta handik hamabost egunetara sartuko da indarrean, eta horren aurkako diren edo kontraesaneari dauden udal xedapen guztiak baliogabetuta geratuko dira.